



Argazkian Amaia Alvarez Uribe eta Gema Lasarte, Sareinak blogaren sortzaileetako bi.

Sareinak, sarean barna

Emakumeak, feministak, euskaldunak eta literatura zaleak dira, eta sarean daude. Gema Lasartek, Amaia Alvarez Uriak, Josune Muñozek eta Iratxe Retolazak osatzen dute *Sareinak*.

ILAZKI GAINZA

Argazkiak: Alex Larretxi

SAREINA emakume lanbide bat da, saregileena alegia. Historiatik horrelako zerbait berreskuratu nahi zuten; metaforikoki azaldu sarean daudela, sareak egin nahi dituztela euren artean eta sareetan dauden hutsuneak bete nahi dituztela. Garai bateko Parketatik hasi, portuetara pasa eta bat-batean, oso denbora gutxian Interneten nabigatzen hasi direla adierazteko ere baliagarria izan zaie izena: sareak eman die emakumearen izatea hariekin eta jostorrazarekin lotzeko metafora ezinhoba. Izenak berak eman die “izana eta etorkizuna”.

Bloga

Martxoaren 3an aurkeztu zuten Lekeition Sareinak bloga bi asmo nagusirekin. Lehenengo, euskararen munduan literatura eta metodologia feminista uztartzea, ezagutaraztea eta praktikan ipintzea; bigarrena, emakume idazleen lanak ezagutzera ematea. Berau egituratzeko irakurleen laguntzarekin sare bat osatu nahi dute, eta <http://eibar.org/blogak/sareinak> gunea iritzi, kritika eta abarren gunea n dadila. Blogak irakurlea idazle bihurtzeko aukera eskaintzen du eta aldi berean interakzioa handiagoa da web gunean edo aldiz-

kari batean baino, azkarragoa behintzat. Gainera, kontuan izan behar da lau sareina hauek Euskal Herriko hiru lurraldetan (Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan) bizi direla eta komunikatzeko errazagoa dutela bloga.

Blogak ezinbestekoa du irakurleen laguntza. Bere sortzaileak arduratuko dira bloga berritzeaz eta biltzen doazen materiala zabaltzeaz, baina beharbada irakurleen batek euren ez dakiten zer edo zeren berri dute, edota besterik gabe ikuspegi desberdina eman nahi diote gaiari; hori ere aberatsa da blogarentzat, bere garapenarentzat.

Zer dela eta literatura femeninoa?

Gema Lasarte eta Amaia Alvarez Uriaren doktorego-tesiek pertsonaia femeninoa eta euskal literaturan emakume idazleek egindako lana dute ardatz. Informazioa biltzen hasi ziren eta berehala ohartu ziren euren gutxi zegoela idatzita horri buruz. Zeregin horretan beste norbait aritu behar zela pentsatu zuten eta hala elkartu ziren Iratxe Retolaza eta Josune Muñozekin. Urtebetez jardun dira lanean eta azkenik, 2007ko martxoan aurkeztu zuten bloga.

Liburua, etorkizuneko proiektua

Liburu bat idazteko aukera ere mahai gainean dute etorkizuneko proiektu bezala. Emakume idazle zaharrek, omisioz ezkatutakoak, baztertutakoak eta oraingo berriak bilduko dituen liburu bat idaztea dute pentsatua; Miren Agur Meabe, Mariasun Landa eta beste hainbat idazle handietan geldiuine bat eginez. Horrek ez du esan nahi emakume guztiek emakume izate hutsa-

gatik liburu horretan sarrera ziurtatua dutenik. Orain arteko irizpide literarioak subjektiboak direla diote eta eurek lortu nahi dutena da orain arte ikusi eta baloratu ez diren emakume idazleen lanen berri ematea; lana eta ez generoa. Emakumeen literatura ez da homogeneoa, beren ustez idazle bakoitzak ekarpen desberdina egin dizkiolako literaturari.

“Erresonantzia kaxak” falta direla diote, dagoen egoera ezagutarazi eta zabalduko dutenak, bloga sortuz hutsune hori bete nahi izan dute. Emakumeen artean komunikazioa, literatura sistema osatzen duten elementu guztiak bilduko dituen foroa osatzea da helburua, idazle, kritiko eta irakurleak bilduz. Emakumeek bere ezintasun, ikusezintasun, ezizate hori gainditu eta begiratzeko modu diferente bat azaltzeko aukera izan dezaten lortu nahi dute. Aldi berean literatura goi mailako metafora izatetik egunerokotasunera jaisteari garrantzitsua deritzote, gizarteak beldurrik gabe irakur dezan, zailegia izango denaren beldurrik gabe.



Goiko itxura du Sareinak blogak. <http://eibar.org/blogak/sareinak> helbidean irakurri daiteke.

Emakumeen literatura

Literatura femeninoarekin kritika feminista lotu dezakegu; Gema Lasartek kritika postkolonialarekin erkatzen duen kritika feminista hain zuzen ere: “XX. mendean inork ez du sinesten koloniak daudenik, izan ere ez daude. Gauza bera gertatzen da gizonezkoen eta emakumezkoen historiarekin: gizonak ez daude hor gainean, baina postkoloniak daude. Hegemoniak daude gizona eta emakumearen historian; eta literaturan are gehiago. Azpiegitura batzuk uzten dira bidean eginak: mentalak, kulturalak, ekonomikoak, militarrek, eta egoera hegemonikoak sortzen dira emakumeen inguruan”.

Hegemonia horri aurre egitea erabaki dute lau emakume hauek eta horretarako gaur egungo eta lehenagoko egoera azaleratzea erabaki dute blog honen bidez. Emakumeak historian zehar hor egon dira, gizonezkoak bezalaxe eurek ere idatzi dutelako. Baina, zehaztutako kanonak jarraitu ezean, berauetatik at uzten dituzte emakumeak, eta horregatik oso gutxi agertzen dira euskal literatura lantzen duten liburuetan. Garai batean ez zituzten baloratzen egindako lanagatik, emakume izateagatik baizik; eta gaur egun ere, Sareinen ustez emakume izateagatik jada ezaugarri batzuk jartzen dizkiete, oso era desberdinean

idatzi arren. Adibide moduan Ixiar Rozas, Sonia Gonzalez eta Eider Rodriguez jarri zituzten.

Belaunaldi berekoak izan arren, oso modu desberdinean idazten dute. Nabardura horiek bakoitzaren esperientzia, bizipen eta idazteko eraren ondorio dira; nahiz eta gai batzuk ziurrenik errepikatuko diren eta baita esperientzia kolektibo batzuk ere, ezinbestean.

Emakume eta gizonezkoen idazkerari buruz galdetuta, Amaia Alvarez Uriak dio horrek ez duela zerikusirik emakumezkoa edo gizonezkoa izatearekin, hori sinbolista edo metaforikoa izatea bezala delako. Bakoitzak idazteko modu bat du eta poeta maskulino asko daude, adibidez estilo femeninoa dutenak. Horiek etiketak direla dio, betiko etiketak.

Hitz hauen esanahia?

Feminismoa, femeninoa, emakumea... kontzeptu desberdinak dira, baina antzekoak aldi berean. Hala ere, Sareinek desberdindu egiten dituzte blogean irakur daitekeen moduan: Feministak izan arren, “literatura feminista” terminoa ez dute gustuko emakumeek egindako literatura definitzeko orduan. Eurek ez dute uste halakorik dagoenik; gai feministak, gaiak lantzeko era feminista, pertsonaia feministak badaudela, baina estilo feminista edo egitura feministarik, aldiz, ez. Euren ustetan feminismoak ez du sortzen literatura motarik, baizik eta teoria oso bat, eta honen bitartez kritika literario feminista, baina literatura feminista, ez. “Literatura femeninoa” ere ez dute gogoko, abstraktuegia delako eta orokorrean gutxiespen zentzuan agertu ohi delako, bigarren mailako literatura bati buruz hitz egiteko. “Emakumeen literatura” da gehien gustatzen zaiena, emakume guztiek sortu eta sortzen ari diren literatura barneratzen duelako, diskriminaziorik egin gabe.

“Feminismoa ez da homogeneoa, feminista ez da pertsona jakin bat eta bere moduko klonak; feminismoa bizitzeko modu desberdin eta ugari daude, pentsaera kontrajarriak bilzen dituen korrontea baita”. ■

“XX. mendean inork ez du sinesten koloniak daudenik, izan ere ez daude; gizonak ere ez daude hor gainean, baina postkoloniak daude”

Gema Lasarte